

ADORE BAGAKOEN ARTEAN

*Ez dagigu ezer!
Guztia dago zatitu-ta.
Ixilik nengoan baiña,
Guztia egoan apurturik.
Aurrera egin neban neure
atsekabearen bidezti
eta ez neban aurkitu
arduragakotasuna besterik.
Minbera dakust guztia
ta gure aberriaren zentzuna
ez dager argi...
Urratu egin gura neukez kateak
(geure izakerea lotzen dauskuen
kate anker eta nardagarriak).
Baiña isilik nabaitzen dot
Inguru zaratatsua:
Soraiokeriz eta ixilik,
koldar eta ardura bagarik,
begira, itsu, taiu antzuaz,
adore, bagarik.
Zer dagiket, baiña, bakarrik...?*

*Dagidan zerbait
eta noian aurrera,
al dodana egiñez,
adore ta asmu barriz,
inguruak be itzarri daitezan
itxaropenari adi.
Galdutako onari negarrez
geratu ba-nadi,
nire garrak ez leuke
erantzukizunik.*

* * *

*Noian, ba, aurrera,
(neure gogaieri jarrai)
aberiaren zorionari adi,
naiz-ta ezetarako
adore bagarik
inguruak aurki.*

AURRE-APRAIZ

ANDRA MARI

*Arrigarria zara
andra danen artean
aturiko Ama;
GOTZON bat eldu jatzu
lurrean sortu nairik
kristauen Errezuma.*

*«Jaunaren mirabe naz»
«zure itza bete bedi»
zeru ta lurretan;
Mundu Gaizkatzaillea
GOGO bidez sortu zen
zure erraietan.*

*Jesus Aurra jaio zen
amatasun garbian,
txabola zarrean;
aingeruak mendian
artzain langillei deika
gurtze izenean.*

*Ezkatapen aundia
aberen jagoleak
Artzain Buru gurtzen;
Maria, zer dakusu...
gizonik apalenak
semea goratzen.*

*Izarrak dardar dagoz
arrituta begira,
ortzetik lurrera;
ama, zure altzuan
aurra ikusten dabe;
Jaungoiko berbera.*

*Jaungoikoaren ama
egin zaitu Jesusek:
itz arrigarria;
zure duintasuna
miresten dau zeruak,
lurreko andria.*

PAULIN